



1. Klimograma hauek Koppen-Geiger metodoaren bitartez sailkatu.


1




2




3



4



5



6






Diagrama	Klima mota (Koppen-Geiger sailkapena)
1	Klima tropikal montzonikoa (Am)
2	Klima epela epela, uda lehorrekin (Csb Mediterraeno uda hotzekin)
3	Klima lehorra basamortukoa lehorra (Bwk Basamortuko klima hotza)
4	Klima klima epela, hezea eta tenperatura hotza (Cfc Ozeanikoa)
5	Klima kontinental, prezipitazio aldetik uda lehorrak eta tenperatura epela (Dsb Klima kontinental uda freskoekin)
6	Klima epela, prezipitazio ugari eta hezea eta tenperatura hotza (Cfc)

2. Lotu diagrama klimatiko hauek Afrikako zonalde bakoitzarekin. Azaldu.


1





2



3



4



MAPA	DIAGRAMA
A	2 (Bsk, Estepako klima hotza)
B	4 (Am, Klima tropikal montzonikoa)
C	1 (Aw, Klima tropikal sabana)
D	3 (Bwh, Basamortulo klima beroa)


**-A puntua mapan:** 2. diagramarekin lotu dut, prezipitazio gutxi egiten duen tokietan landa eremu eskasa daukate, hau da, zenbat eta flora gehigo izan orduan eta hezetasun gehiago sortuko da, prezipitazioak egoteko aukerak igoz. Afrikako hegoaldea eremu lehorra da, landaretza aldetik ez da oso nabaria eta tenperatura hotza da.

**-B puntua mapan:** 4. diagramarekin lotu dut, prezipitazio ugariak daude baina baditu 4-5 hilabete zeinetan prezipitazioak eskasak diren (udaren kasua). Tenperaturak ez dira oso beroak, hegoaldeko zonaldearen ondoan dago eta aurreko eremuan bezala, hegoaldeko zonaldea hotzagoa da.

**-C puntua mapan:** 1. diagramarekin lotu dut, lehenik eta behin, prezipitazio gehien dituen eremua delako; tropikoaren ezaugarriak betetzen ditu (landaretza, hezetasuna, prezipitazioak) Afrikako erdialdea da eta flora gehien aurkitzen den tokia, ondorioz, hezetasuna egonen da eta prezipitazioak oso ugariak izango dira, 4-5 hilabetetan izan ezik (udaren kasuan). Azkenik, tenperatura beroak direla aipatu beharra dago eta horrek tropikoaren ezaugarriekin bat egiten du.

**-D puntua mapan:** 3. Diagramarekin lotu dut oso agerikoa den bezala basamortua delako. Afrikan basamortuak ugariak dira baina iparraldeko eremuetako klima lehorra ezaguna zaigu eta ezaugarriekin bat egiten du: ez daude prezipitaziorik, batz besteko tenperatura oso beroa da, 18 gradu gorakoa eta neguak hotzagoak dira.

### 3. Hego Amerikaren prezipitazioen banaketa espazialaren iruzkina egin





Hego Amerikako klimaren azterketa egintearren, zonaldearen arabeko klima aztertuko dut eta horren inguruko informazioa emanen dut. Klima eta zonalde bakoitzaren ezaugarriak eta desberdintasunak deskribatuz.

Tropikal ekuatorialako klima barnebiltzen duten lurraldeak, Brasileko iparraldea, Venezuelako hegoaldea, Ekuadorreko ekialdeko gunea, Kolonbiako zati handi bat, Peruren herrialdea eta Boliviaren mendebaldea dira. Herrialde hauen klima, temperatura aldetik beroak izanen dira eta prezipitazio ugari lurraldeak dira. Tropikal montzonikoa duten herrialdeak, Brasileko iparraldea, Boliviako ekialdea, Peruren ekialdeko zati txiki bat, Kolonbiako iparraldean, Venezuelako hegoaldea, Guayanako hegoaldea, Surinam zein Guayanako hegoaldea. Klima tropikalak diren heinean temperaturak oso altuak izanen dira baina prezipitazio aldetik, zonalde klima montzonikoaren, hilabete lehorragoak dituzte, klima ekuatorialekin konparatuz. Klima tropikal sabana duten lurraldeak, Brasileko herrialdea, Boliviako zati handi bat eta Paraguay dira, prezipitazioak egon arren, urtean zehar oso klima hezea du eta temperaturak oso altuak dira.

Klima lehorrak aztertuz, estepako klima beroa Brasileko ekialdean, Argentinako erdialdean, Paraguayeko hegoaldean eta Boliviako hegoaldean aurkitzen da: prezipitazio gutxi eta temperaturak 18 gradu baino altuagoak dira. Hego Amerikako Peruko mendebaldea, Argentinako erdialdea eta Kolonbiako iparraldea, basamortuko klima beroa dute, hau da, hilabete gehienak oso idorrak dira eta temperaturak oso altuak dira. Estepako klima hotza duten herrialdeak, prezipitazio gutxiko zonaldeak

dira eta batz besteko tenperatura 18 gradukoa da. Azkenik klima lehorrekin bukatuz, basamortuko klima lehorra duten herrialdeak, Bolibia, Txile eta Argentina dira; urtean zehar prezipitazio oso gutxi daude eta batz besteko tenperatura 18 gradu baino gutxiagokoa da. Klima epelak aztertuz, mediterranea Bolibian, Txilen eta Argentinan aurkitzen dugun klima da; udak beroak dira, prezipitazio gutxi daude (30mm baino gutxiago) eta 4 hilabeteko tenperatura batz besteko 10 da. Mediterraneo uda freskoekin, aurreko herrialdeetan aurkitzen da ere, prezipitazioak eskasak dira eta udan, tenperatura maximoa 22 gradutik beherako da. Itsadoaldeko subartikoa, ozeaniko hotza, Hego Amerikako iparraldean aurkitzen den klima da; urtean zehar prezipitazioak handiak daude baina neguak hotzak dira (10 gradu gorako tenperaturak).

Klima epelak aztertzen jarraituz, subtropikala negu lehorrekin Argentinako erdialdea, Bolibiako hegoaldea, Peruko erdialdea eta Ekuadorreko hegoaldea dute klima hori; udak 22 gradutik pasa ohi dira eta neguak oso lehorrak izaten dira. Klima epela negu lehorrekin, Brasileko zonalde txiki batean aurkitzen da; azkeneko klimarekin atzekotasunak ditu baina udak freskoagoak dira, 22 gradutik beherakoak. Subtropikala hezeak, Argentina, Uruguay, Paraguay eta Brasileko iparraldea hartzen du, klima mota honen ezaugarriak zonalde hezeak direla eta uda beroak direla da. Bestetik, klima mendebaldar kostaldeko itsasoaldekoa (ozeanikoa) dugu, Argentina eta Peruko zonaldea hartzen duena, urtean zehar klima hezea aurkitzen dugu baina udak freskoagoak dira (22 gradutik behera). Klima epelekin amaitzeko, itsasaldeko subartikoa (ozeaniko hotza) izeneko klima, Perun aurkitzen dugu. Urtaroak hezeak dira eta prezipitazioak ematen dira, baina udak freskoak eta hotzak dira (10 gradutik gorakoak).

Klima kontinentalekin hasteko, klima kontinentalak uda hotzekin ditugu, Txile eta Argentinako hegoaldean kokatzen den klima da eta bere ezaugarriak, prezipitazio gutxiko udak, negu oso hotzak eta udak epelak dira. Klima kontinental subartiko edo boreala, Txileko hegoaldean eta Argentinako hegoekialdean aurkitzen dugu; udak lehorrak izaten dira (prezipitazio gutxi) eta udak hotzak dira, 10 gradutik gorakoak.

Azkeneko klima aztertuz, klima polarrak ditugu. Tundra izeneko klima Txileko hegoaldean aurkitzen da gehien bat, hau da, hilabeterik beroena 10 gradutik ez da pasatzen eta azkenik Argentina eta Txileko herrialdeetako puntetan, betiereko izotzak izeneko klima ematen da, hau da, hilabete beroena 0 gradutik beherako da.